

**2021EKO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga

**EZ BERTARATUAK**

**Zinegotziak**

Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko maiatzaren 25ean arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

1 OHARRA.-Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkate Dekretuaren bidez Plenoko aretoaren neurriak ikusirik neurri berezi batzuk hartu direla:

1.- Bileran zinegotzi hauek parte hartuko dute zuzenean: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Gainontzeko zinegotziek, bere taldeko bozeramailearen gain utziko dute bere boto delegatua. Bozeramaile bakoitzak delegazio kopuruaren araberako botoak izango ditu.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Maria Cristina Santos San Sebastian, Jose Ramón Epelde Irizar eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bilera-  
ren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Egoera hauek tarteko burutu da batzarra.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

#### **\* 2021/04/27KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Ana Jesus Leunda And.ak EAJko ordezkariak zuzenketa batzuk eskatu dit, aldaketak idazketa/transkripzio akatsei dagozkie, ez inola ere esandako edukien ingurukoak. Idazkariak aldaketak egin eta hurrengo batzarrean aurkeztuko dituela adierazi du.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO APIRILAREN 21ETIK MAIATZAREN 14RA (2021/80 - 2021/114).**

Alkatetzak 2021eko apirilaren 21etik maiatzaren 14ra bitartean (2021/80-2021/114) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO ORDEZKOEN IZENDAPENA.**

Gorka Murua Jn.ak, adierazi du, batzordeetan gutxienerako *quoruma* bermatzeko ezinbestekotzat jotzen dela batzordeetako ordezkarien ordezkioak izendatzea.

Ondoren, Idazkariak hartu du hitza, legegintzaldiaren erdira iritsi garela eta batzordeetako erabakiak nahiz eta lotesleak ez izan, berme juridikoa izateko ezinbesteko baldintza gutxienerako partaide kopurua dela gaineratu du, halaber, egindako txostenean horrela jaso dago:

#### **GAIA: BATZORDE INFORMATIBOETAKO ORDEZKOEN IZENDAPENA. AURREKARIAK.-**

Irurako Udalaren osaketarako 9 udal ordezkari izendatu ziren, 2019ko ekainak 15ean, ez-ohiko udal batza antolatzeako batzaraldian. 2019ko ekainak 25ean aldiz, Alkateak bere eskumenera baitan batzordeetako ordezkariak egin zituen.

Legegintzaldia aurrera doala ikusirik, eta batzordeetako deialdietara ordezkariak aurkezteko izaten dituzten arazoak direla eta, zailtasunak daude gutxienerako *quorumer*a iristeko.

Egoera hau, Udal administrazioaren ohiko jardunean aritzeko traba handia suposatzen ari da. Irtenbidea bilatze aldera, batzordeetako ordezkarien ordezkioak izendatzea erabaki da.

Hori horrela, maiatzak 14an, 2021/587 sarrera zenbakiarekin, EAJ talde politikoak Alkateari zuzenduriko proposamena egin zuen; eta gauza bera egin zuen maiatzak 19an, 2021/611 sarrera zenbakiarekin, EhBildu talde politikoak.

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA.-**

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena. *Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.*

#### **Artículo 24.**

1. **Los grupos políticos se constituirán mediante escrito dirigido al Presidente y suscrito por todos sus integrantes, que se presentará en la Secretaría General de la Corporación dentro de los cinco días hábiles siguientes a la constitución de la Corporación.**

2. **En el mismo escrito de constitución se hará constar la designación de *Portavoz del grupo*, pudiendo designarse también *suplentes*.**

## TÍTULO II.-Organización necesaria de los Entes locales territoriales

### CAPÍTULO I.-Del Municipio.-Sección primera. Constitución, vigencia y finalización del mandato corporativo

#### **Artículo 38.**

Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, **el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno** de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:

- Periodicidad de sesiones del Pleno.
- Creación y composición de las Comisiones informativas permanentes.
- Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno.
- Conocimiento de las resoluciones del **Alcalde en materia de nombramientos** de Tenientes de Alcalde, miembros de la Comisión de Gobierno, si debe existir, y Presidentes de las Comisiones informativas, así como de las delegaciones que la Alcaldía estime oportuno conferir.

#### **Artículo 125.**

En el acuerdo de creación de las Comisiones informativas se determinará la composición concreta de las mismas, teniendo en cuenta las siguientes reglas:

- El Alcalde o Presidente de la Corporación, es el **Presidente nato** de todas ellas; sin embargo, la Presidencia efectiva **podrá delegarla en cualquier miembro de la Corporación**, a propuesta de la propia Comisión, tras la correspondiente elección efectuada en su seno.
- Cada Comisión estará integrada de forma que su composición se acomode a la proporcionalidad existente entre los distintos grupos políticos representados en la Corporación.
- La adscripción concreta a cada Comisión de los miembros de la Corporación que deban formar parte de la misma en representación de cada grupo, se realizará mediante escrito del portavoz del mismo dirigido al Alcalde o Presidente, y del que se dará cuenta al Pleno. **Podrá designarse, de igual forma, un suplente por cada titular.**

#### **Artículo 135.**

1. La **válida celebración de las sesiones** requiere la presencia de la mayoría absoluta de los componentes de la Comisión, ya sean titulares o suplentes, en primera convocatoria y **un mínimo de tres miembros en segunda convocatoria una hora más tarde.**

(...)

#### **Artículo 99.**

- El Pleno de las Corporaciones Locales adopta sus acuerdos, como regla general, por mayoría simple de los miembros presentes. Existe mayoría simple cuando los votos afirmativos son más que los negativos.
- Se entenderá por mayoría absoluta cuando los votos afirmativos son más de la mitad del número legal de miembros de la Corporación.
- Se entenderá que existe la mayoría requerida en el artículo 47.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, cuando los votos afirmativos iguallen o superen a los dos tercios del número de hecho de miembros que integran la Corporación y, en todo caso, mayoría absoluta de su número legal. Sólo en el supuesto del artículo 29.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, la mayoría de dos tercios se refiere al número legal de miembros de la Corporación.
- En el caso de que**, de acuerdo con el procedimiento establecido en el párrafo primero del artículo 182 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, **no queden más posibles candidatos o suplentes a nombrar, los quórum de asistencia y votación previstos en la legislación vigente se entenderán automáticamente referidos al número de hecho de miembros de la Corporación subsistente, de conformidad con lo dispuesto en el citado precepto electoral.**
- El voto de los Concejales es personal e indelegable.

## **PROPOSAMENA.-**

1.-Ohiko batzarraldi batean ordezkoen izendapena egitea, dagoeneko ordezkari denak izendatuta daudelako lehenengo, 2019ko ekainak 15ean, ez ohiko udal batzarraren eraketa egunean, eta bigarren goz batzordeetako ordezkariak 2019ko ekainaren 25ean erabaki zirelako.

2.-5/1985 Hauteskundeen lege organikoaren 182. Artikuluaren irakurketa eginaz, EAJ eta EHBilduk aurkezturiko zerrendak onartzea, hau da, batzordeetarako ordezkari bat baino gehiago izendatzea gutxieneko *quoruma* bermatu ahal izateko.

3.- Udal batzarrak erabakia onartzea eta Irurako Udaleko langileei berri ematea.

Zuzenbidean oinarritutako irizpide hoberik ezean, izapidetzen dut.

Iruran, 2021eko maiatzaren 25ean.-Idazkariak.- Irantzu Arrizabalaga Gainza And.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

#### **4.- 2022 URTERAKO HERRIKO JAI EGUNA IZENDATZEA.**

Alkateak adierazi du 2021eko maiatzaren 20an, EHAA argitaratu zen maiatzaren 4ko 132/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duenaren oharra jaso dela eta, 2.022. urteko udalerriko jai eguna izendatu behar dela, eta betiko moduan, herriko patroia den San Migel, irailak 29 izango dela.

Idazkariak hartu du hitza ondoren eta gaineratu du, gaur bertan jakin dutela, 2.022. urteko Gipuzkoako jai eguna Arantzazuko eguna izango dela, hau da, Irailak 9 osteguna. Jakinarazpen honen berri Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari bidali beharko zaio.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

#### **5.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENA”.**

EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa eta Gorka alkateak irakurri du:

##### **“KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPENA**

Joan den apirilaren 28an, Kolonbiako herria kalera atera zen bizi-baldintza justuak eskatzeko, Ivan Duqueren Gobernuaren zerga-erreformaren aurka eta justizia soziala duen herrialde baketsu baten eskakizunarekin.

Orduetik, mugarik gabeko Geldiadi Nazionalean daude, eta, orduetik, Gobernuaren erantzuna errepresio bortitza izan da protestarako eskubidea legitimoki erabiltzen ari diren pertsonen aurka, bizitza duina eta giza eskubideen errespetua eskatuz.

Sistema demokratiko batean, protesta soziala oinarrizko eskubideetako bat da, eta Estatuak errespetatu eta bermatu behar du.

Herritarren oinarrizko beharrei erantzuteko aukera emango duen zerga-sistema bidezko eta progresibo baten aldeko gizarte-eskaeren aldarrikapen baketsua bermatu behar da, baita Bake Akordioaren garapen erreala eta integrala eskatzen duten eskaerena ere, funtsezkoa baita bake egonkor eta iraunkorrerantz aurrera egiteko.

Hainbat plataformaren arabera, Langabezia Nazionala hasi zenetik, poliziaren indarkeria, eraildako eta zauritutako pertsonak, atxiloteta arbitrarioak eta indarkeria sexuala izan dira Indar Publikoaren eskutik. Herrialdeko hirietan etxeko bideoekin grabatutako irudi askok ez dute zalantzarik uzten, eta herritarren aurka su-armak erabiltzen dituen Indar Publiko bat erakusten dute, indarkeriazko eta bereizketarik gabeko errepresioan.

Honen aurrean, ezin gara isilik egon.

Indar polizialak kolonbiarrak erreprimitzen, jazartzen, zauritzen eta hiltzen ari dira, eta, beraz, gogorarazi behar diogu gobernuari bere erantzukizuna dela Giza Eskubideak babestea eta bermatzea, bizitzarako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea barne, bai eta bilera baketsua egiteko askatasunerako eskubidearen erabilera erraztea ere.

Horregatik guztiagatik,

- Kaleetan legez protesta egiten dutenen aurkako errepresio basati eta bidegabea salatzzen dugu.
- Ivan Duqueren Gobernuari eskatzen diogu Kolonbiako herritar guztien giza eskubideak babesteko eta bermatzeko.
- Indar Publikoak eragindako indarkeria-gertakari guztiak argitzea eskatzen dugu, eta dagozkion erantzukizunak zehaztea, bai haien maila ofizialetan, bai agindu horiek eman dituzten gobernuetan.
- Elkartasuna adierazten diegu protestaren kriminalizazioaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei.
- Salatzen dugu indarkeriaren gorakadaren egoera erabiliz, mobilizazioetatik kanpoko taldeek ondasun komunak arpilatu eta erasotzeko erabili izana, bai eta ekintza horiek protesta soziala kriminalizatzeko erabili izana ere.
- Gure elkartasuna adierazten diegu Kolonbiako herriei, eta beren eskaerekin bat egiten dugu bizi-baldintzak benetan hobetzeaz eta justizia soziala duen herrialde baketsu bilakatzeez hitz egiten dutenak.
- Nazioarteari eskatzen diogu elkartasun adierazpenak egin ditzala Kolonbiako herriarekin, bai eta Ivan Duqueren Gobernuaren aurrean behar diren ekintza diplomatiko eta politikoak egin ditzala ere, errepresioa amaitzeko eta Kolonbiako Herriaren Eskubideak errespetatzeko.

#### **Kolonbiako bake-prozesua babesteko taldeartea.**

Gasteizen, 2021eko maiatzaren 11a “

## **BOZKETA: Mozioa aho batez onartua geratu da.**

### **6.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “PALESTINAKO GATAZKA”.**

EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa eta Gorka alkateak irakurri du:

#### **“Adierazpen Instituzionala edo mozioa- Palestina**

Israelgo auzitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik hainbat familia kanporatzeko eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren aurka egindako erasoaren ostean, Palestinako tentsioa gogortu egin zen berriro.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotuko dituela, eta dagoeneko 43 pertsona hil direla, horietako hamahiru adingabeak. Zisjordanian gutxienez bi gazte hil dira, horietako bat adingabea. Ildo horretan, azken egunotan ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek Gazan.

Israelgo armadak 5.000 erreserbista mobilizatu ditu eta iraupen zehaztugabeko erasoaldi baterako prestatzen ari da.

NBEk ohartarazi duenez, indarkeria maila horrek eta horiek Palestinako biztanleengan dituzten ondorioez ohartarazi du.

#### **Gertakari horien aurrean, Irurako Udalak:**

- Israelek Palestinako herriari egiten dizkion giza eskubideen urraketak salatu ditu. Ildo horretan, nazioarteko komunitateari dei egiten dio erasoaldi militar hori geldiarazteko eta elkarrizketarako eta negoziatziorako bideei berriro ekiteko, Mahmud Abbas Palestinako presidenteari Europako erakundeekin laguntzarekin Nazioarteko Bake Konferentzia bat egiteko egindako eskaera babestuz.

- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek lurralde palestinarrak legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta, aldi berean, elkartasuna eta konpromisoa adierazten du herri palestinarraren giza eskubideen defentsarekin, Nazioarteko Zuzenbideak ezartzen duen bezala.

- Palestinarako laguntza humanitaria indartzeko eskatu die **euskal/Nafar** erakundeei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.”

Ana Jesus Leunda zinegotziak, moziari egiteko emandakin partziala irakurri du, eta honela dio:

Maiatzak 18an, EAJ-PSE, Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean proposatutako adierazpena, Israel eta Palestinako gatazkari buruz, talde politiko guztiek onartu zuten.

Hemen aurkeztutako adierazpena, Legebiltzarrean adostutako resumena da.

Hiru proposamena ditu eta hauen aurretik dijoana irakurri egingo det...

Gertakari horien aurrean, Eusko Legebiltzarrak ontzat ematen du Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak indarkeria geldiarazteko egindako deia.

Israel eta Hamasen arteko indarkeria berehala gelditzeko eta bi aldeei borroka eteteko deia egiten duela, izan ere, bi komunitateentzat eta eskualde osorako ondorio suntsitzaileak izan ditzaken indarkeria espirala gehiago sor dezakeelako.

Adostutako adierazpenean dago eta irtitzen zaigu ondo dagoela jasota gelditzea.

Jarraian, Alkateak, emandakinaren aldaketa onartzen dutela adierazi du.

### **BOZKETA: Mozioa aho batez onartua geratu da.**

#### **7.- GALDE-ESKAERAK.**

1.-Gorka Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, EHBilduko partaideak hizketan aritu direla eta datorren batzarra zinegotien presentziarekin egiteko proposamena jarri nahi duela EAJ taldeako kideek ez badute kontrako iritzirik.

Dagoeneko denbora dextente daramatela bozka delegatuaren sistemarekin eta betiko jardunera bueltatzeko bermeak daudela dirudiela.

Ana zinegotzia alde azaldu da.

Halaber, Idazkariak gaineratu du, aurretiazko plenoak egitea bateragarri dela zinegotziren bat etxean itxialdian egon behar badu, 7/1985 legeak ahalbidetzen duela telematikoki konektatzea, horrela, zinegotzien betebeharrak eta eskubideak urratuak izan ez daitezken.

2.-Noelia zinegotziak, berdintasun batzordeko ordezkaria ere bada. Batzorde horrek egiten duen lanak zerikusituzena du genero ikuspegiaren trataerarekin, bai udalaren barneko jardunean bai eta udalerriko egunerokotasunean desberdintasunak gutxitzearekin.

Hori horrela, zinegotzi guztien artean banatzeko kolore moratua duten betaurrekoak banatu ditu.

Udal langileen artean banatuta daude jadanik eta gai hori azalerazteko edo egunerokotasunean presente izateko keinu txiki guztiak ongi etorriak direla adierazi du.

Ana zinegotziak ekintzaren aldeko jarrera azaldu du eta eskerrak eman dizkio berdintasun zinegotziari.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:40tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**